

ERREALA PROIEKTATU

Arkitektura film-mintzairak

PROYECTAR LO REAL

Arquitectura: lenguajes fílmicos



2009ko urriaren 29a - abenduaren 31

Proiektzioen + eztaba-ida-jardunaldien + Erakusketen



ANTOLATZEN DUTE



ERREALA PROIEKTATU

Arkitektura film-mintzairak

CRISTINA ENEAKO PATRONOAK DIRA



Erakusketa

2009ko urriaren 29a – abenduaren 31

Emanaldi - eztabaida-jardunaldi programa

2009ko azaroaren 23 - 27a

PARTE HARTZEN DUTE



Zuzendaritza: BNV Producciones, CRISTINA ENEA FUNDAZIOA eta COAVN GIPUZKOA
Ekoizpena: BNV Producciones, Sevilla

AURKEZPENA

Irudi zinematografiko, hiri moderno eta arkitekturaren arteko erlazioek zinemaren historiaren jatorrian bertan dute oinarria, XIX. Mendearen azken urteetan. Leedseko portuari buruzko Louis de Princeren, Skladanowsky anaien Berlingo edo Lumière anaien Lyongo lehenengo irudietatik geroko Walter Ruttmann Berlin, *hiri baten sinfonia* edo Dziga Vertoven *Kamerako gizonaraino*, hogeiko urteetan, agerian geratzen da zinemak hiri- eta arkitektura-inguruneak aurkezteko beti izan zuen interesa, bertan sortzen baitziren industria zinematografiko hasiberria txertatuta zegoen ekoizpen-erlazio berriak.

Bestalde, kamerak espazioan eragindako mugimenduaren dinamismoa, eszenografiaren ahalmen estetiko eta esperimentala, muntaketa-diseinuak, maketak edo teknologia berriak erabakigarriak izan dira arkitekturak zinemari jarritako arretan.

Egun, arkitekturak eta zinemak aliantza eta inspirazio berriak bilatzen dituzte oraindik, botere sinboliko, politiko eta ekonomikoen arteko erlazio berriak agerian uzteko zein sendotzeko.

Tokiak pertsonen bizitzekin duten lotura ulertzea eta filmak, gertatzen diren arkitektura-inguruneen bidez gehiago ulertzea dira arkitektura eta zinemaren arteko elkarreragina egundaino iraunarazi duten oinarritzko arrazoiak. Mintzaira, bereziki filmena, munduarekin erlazionatzeko daukan moduz hausnartu. Ez al da ba planetako lehenengo ekonomia fikzio-kopuru gehien sortzen interesatuta dagoena? Esperimentatzeko, iragandenbora eta oraina interpretatzeko eta etorkizuneko denbora imajinatzeko, baina baita gizarte- zein politika-egiturak eta horien espazio- zein arkitektura-korrelatuak zabaldu eta sendotzeko ere, arkitekturak eta zinemak elkar baliatu dutela aztertzea, horiek dira proiektu honen oinarriko hausnarketak.

Aurkeztutako material-multzoak askotariko ibilbide konplexu bat proposatzen digu AEBetako New York edo Los Angeles, Europako Bartzelona edo Londres eta Afrikako Lagos moduko hiri ospetsuetatik. Panorama horrek bizi garen hiriekin eta horien ikusizko adierazpenekin dauzkagun erlazioek oinarri duten askotariko errealitatea erakusten du.

Gure proposamena bi zatitan banatzen da:

Erakusketa-espazioa Arkitektura praktikatzeko beste era batzuk, haren ondorioak, herritarren partaidetza eta memoria kolektiboak eraikitzea proposatzen duten ikus-entzunezko hiru lan eta prozesuan den artxibo bat etengabe proiektatuta.

Proiektzioen eta eztabaida-jardunaldien programa.* Bi zatitan banatutako lau saio: lehenengoa, arratsaldeetan, gonbidatutako hizlariak aukeratutako filmen aurkezpen eta proiektioari buruz; bigarrena, berriz, biharamunean, hausnarketako gaiekin erlazionatutako beste material batzuen proiektioz lagundutako eztabaida- eta solas-tailer bat tartean duela.

* Goizeko eztabaida-jardunaldietara bertaratzeko, alde zurretik izena eman behar da, datu pertsonalak (izena, jarduera, posta-helbidea, posta elektronikoa eta kontaktu-telefonoa) eta zein saioetara joan nahi den adierazita bidaliz: cristinaenea@donostia.org

Inskribapen-ordenaren arabera egingo da onarpena, edukiera bete arte.

Erakusketa

Erakusketa

Erakusketa

Erakusketa

ERREALA PROIEKTATU

Arkitektura film-mintzairak

2009ko urriaren 29a – 2009ko abenduaren 31

Orduetgia: Astelehenetik larunbatera, 9:30-13:30 eta 15:00-20:00
Igandeak eta jaiegunak, 10:00-13:30

2009ko urriaren 30a: Mock-Ups in Close-Up

Orduetgia: 19:00

Lekua: **CRISTINA ENEA**. INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA
Mandasko Dukearen pasealekua, 66. 20012 Donostia-San Sebastián
www.cristinaenea.org



Mock-Ups in Close-Up*

Architectural Models in Cinema 1927-2008

Gabu Heindl eta Drehli Robnik, 2009, z/b eta kolorez, 110'

[Ikus-entzunezkoen etengabeko proiektzioa](#)

Mock-Ups in Close-Up [Maketak lehenengo planoan] *trouvé* metrajeko bideo-bilduma bat da, zinemako historiaren zortzi hamarkadatik gorakoa, eta bertan arkitektura-maketak dauzkaten eszenak (edo besterik gabe hartzeak) agertzen dira. Zuzendariak zintari eszenak gehitzen jarraitzen dutenez, edozein fikzio-filmetatik hartutako maketak baliatuz, bilduma gero eta luzeagoa da. Egun, 1927 eta 2008 artean estreinatutako 110 bat pelikula desberdinen zatiak dauzka. Zinema-maketen artxibo hau ez da baztertzaila eta, beraz, arkitekturari buruzko zinemako ageriko klasikoetara

mugatu beharrean (adibidez, *Iturburua* edo *Arkitektoaren sabela*), gehienez arkitektoak agertzen ez diren eta arkitektura-gaiak lantzen ez dituzten pelikulak biltzen ditu. Aldiz, pelikula horiek guztiek –Alemaniako sail beltzeko drametatik Hollywoodeko terrorezko filmetaraino, James Bondetik X-Meneraino, Fritz Lang eta Sergio Leonetik Tim Burton, Ben Stiller eta Jia Zhangkeraino– maketak erakusten dituzte, drama-, sinbolo- edo umore-helburuetarako irudian agertzen diren arkitektura-maketa batzuk, eta batzuetan helburu zehatzik ere ez dute.

Bilduma bat da, tematua egungo hainbeste bezala, baina maketa bat bestearen gainean pilatzen bide duen bere egitura ahuletik, beste zer edo zer ateratzen da, maketa horietako baten atzeko aldetik bezala. Ateratzen da, adibidez, arma bidezko atraku bat eta operazio militar bat oso antzekoak direla maketak tartean daudenean, bi egoerak kondentsatzeko baliatutako maketak; horien fintasuna ateratzen da suntsituak izateko orduan, edo ateratzen dira arkitekturak hain ondo ezagutzen dituen botere-joko guztiak (gobernatzeko, jarrerak, pertzepzioak eta bilakaerak ezagunak eta kalkulagarriak egiteko jokoak); joko horiek maketa zinematikoen erabilerari lotuta daude, eta erabilera horretan sartzen dira ezagutza-botere lokarriaren diskurtso-estrategiek huts egiten duteneko une gailenak: maketaren eta bere eskalaren irakurketa/ulermenari trufa egiten dioten eszenak.

Gabu Heindl emakumea arkitekto eta hirigilea da. Princeton Unibertsitatean bere ikasketak amaitu ostean, Estatu Batuetan eta Herbeheretan irakatsi eta lan egin zuen. 2004tik diziplina arteko bere estudioa zuzentzen du (GABU heindl architecture) Vienan, eta harekin lan egin du Austriako Zinema Museorako, Veneziako Biennalerako eta Linzen Europako hiriburua izatea lortzeko. Argitaratu eta hitzaldiak eman ez ezik, Vienako Arte Ederren Akademiako irakaslea da.

Drehli Robnik historialaria eta zinemaren teorialaria da, Vienako Ludwig Boltzmann Historia eta Gizarteko Institutuko ikertzailea da, baita Viena, Frankfurt eta Brno.

* 2009ko urriaren 30eko aurkezpena zuzendarien eskutik. Gabu Heindl eta Drehli Robnik-ek bilduma eta bere kontzeptua aurkeztuko dute eta solasaldia izango da bertaratuen artean.



Lagos. Wide & Close: bidaia elkarreragile bat bor-bor den hirira

Bregtje van der Haak, 2001, kolorea, 60'

Ikus-entzunezko instalazio etengabea

Lagos/Koolhaas proiektuan Rem Koolhaasentzat grabatutako materialak baliatuz Bregtje van der Haakek egindako dokumental hau Mendebaldeko komunikabideek luzaro muzin egin dioten hiri baten grabazioa da, oraindik orain egindako gutxienetako bat, erlijio-matxinadei eta Estatu-

golpe militarrei buruz ez bada. Lagos hiria entzuteko eta begiratzeko gonbitea da, aldaketaren bultzadak hirigintzaren indar kontrol-ezinetan ideia txundigarriak agerian utz ditzakeen une batean.

Ikus-entzunezko instalazio honek ikuslea Lagosen bizi eta lan egiteak esan nahi duenaren errealitatera hurbiltzea proposatzen du, baita hiriko ehunduran geruzaka sartzea, Olawole Busayo autobus-gidariarekin eta beste biztanle batzuekin batera mugitzea eta Lagoseko eguneroko bizitzako arau eta aukerei zentzua ematea ere.

Lagos. Wide & Close jatorrizko bertsioan eta gaztelaniaz azpitulatua proiektatzen da tamaina handiko bi pantailatan aldi berean; hiriaren ikuspegi handitu eta urruna erakusten digute beste hurbil eta intimo bati kontrajarrita.

Ezkerreko pantailan, *Wide* ikuspegia erakusten da, hiriaren plano orokorrak ugari agertzen dituen ikuspegi urrun bat, eta haren gainean Rem Koolhaasek Lagosen bere interpretazioa ontzen du. Eskuineko pantailan, gertuko ikuspegi bat agertzen da (*Close*), biztanleen erdiko eta lehenengo planoak nagusi dituela, eta Bregtje Van der Haakek nigeriarrekin dituen solasak erakusten ditu.

Ingurumen-soinutan, hiriak berezko dituenak; entzungailuen bidez, jatorrizko bertsioan, Rem Koolhaas arkitektoaren *off* ahotsa gertatzen dena pertsonalki deskribatuz entzun daiteke, baita Van der Haakek Lagoseko biztanleekin berriketan ere.

Bregtje van der Haak zientzialari politikoa da, kazetaria eta dokumental-zuzendaria. 1994tik komunikabide publikoentzako programak egin ditu. Amsterdameko Unibertsitatean graduatu zen Zientzia Politiko eta Zuzenbidean, eta Kazetaritzan Columbiako Unibertsitatean. New Yorken hasi zuen telebista-karrera *The Charlie Rose Showan*. 1990tik arte, komunikabide eta kulturari buruz idazten du.



Ocharcoaga

Jordi Grau Solá, 1961, kolorea, 11'

Ikus-entzunezko etengabeko emanaldia

Bidebieta

Ibon Telleria Julián, 2009

Dokumental-artxiboa prozesuan Donostiako Bidebieta auzoaren garapenari buruz, Altzako Auzo Elkartaren eta Kutxa Fototekaren artxiboetan oinarrituta

Gure hirietan auzoen eraikuntza azkarrak inprobisatu ziren industria berriak irentsi zituen milaka langileei bizilekua emateko. Bilboko Otxarkoaga auzoan 3.600 etxebizitza eraiki zituzten Francoren erregimenak sustatuta, denbora-marka guztiak hautsiz. Operazio horren berri eman zuen *Ocharcoaga* dokumentalak, 1961ean Jordi Grau zinemagileari enkargatua eta oraindik orain Euskadiko Filmategiak zaharberritua. Egileak berak adierazi zuenez, "kritika burutsua" erabili zuen "kontzientziak astintzeko".

Bidebietan (Donostia) "12 apostoluak" eraiki zituzten, 12 dorre, eta jatorrizko paisaian ikusita, hirien eraikuntza ulertzeko era duin bat uzten zuten agerian. Denboraren poderioz, auzo horiek arazo estrukturalak, sozialak eta ekonomikoak jasan dituzte; aldiz, toki horietako elkarrekin bizi-ingurunearekiko atxikimendu sendoa agertu dute, eta hasierako garaian propaganda asmoz erabilitako begirada "politizatu"aren berrikuspen bat exijitzen dute orain.

Jordi Grau Solá gidoilaria eta zinema-zuzendaria da, Bartzelonako Institut del Teatre eta Erromako Centro Sperimentale della Cinematografía ikasi zuen. 60ko urteetan Espainiako Zinema Berria parte hartu zuen, eta Bartzelonako Eskolan integratu zen. Bere azken luzemetraien artean daude *La puñalada* (1989) eta *Tiempos mejores* (1995). Aktore-lanetan, Juan José Portoren *El florido pensil*-en (2002) egindako lana da aipagarria. Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiako Idazkaria izan zen. Bere idazle-alderdia ere aipatzekoa da, adibidez, *El actor y el cine* edo *Fellini desde Barcelona*.

Ibon Telleria Julián arkitektoa eta irakaslea da Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoko Arkitekturako Proiektuen Arloan. Irakaskuntza eta askotariko arkitektura-lanak bateratzen ditu, nola errehabilitazioan hala obran berrietan, batez ere etxebizitzari lotuta. 2003an Donostiako Bidebieta auzoan hartu zuen etxebizitza eta estudioa, eta hortik hasi zitzaion haren jatorri eta garapenari buruzko jakin-mina.



2009ko azaroaren 23 eta 24a

The Crowd: makinak, etxe-orratzak eta jendetzak 29ko krakean

Juan José Lahuerta

The Crowd King Vidorrek zuzendu zuen 1928an, pelikula tristem; estreinatu eta hilabete gutxitara jazotako 29ko kraka igartzen duela dirudi. Filmean New York erraldoia artean bere zauria ezkutatu antzean agertzen da, eta guztiz bizitza urduriko tokia den hiria erakusten: *shocka*, denbora-, gelditze-, hausnartze-aukerarik eza. Makinak, eraikinak, kaleak eta, batez ere, jendetzak etengabe astinduta agertzen dira.

Benetan, *The Crowd*, *King Kong* edo *42nd Street*ekin batera, hain zuzen 1929ko urriko ostegun beltzeko kraka ardatz hartzen duen pelikula-ziklo baten hasieratzat jo daiteke; elementu komuntzat, berriz, New York dute, egungoaren aurrekari dugun Amerikaren krisi ekonomikoa hobekien adierazten duen "eszenategia". Aldiz, "Amerika" New York da, eta New York funtsean bere etxe-orratzak eta bere biztanleak dira. Etxe-orratza makina birrintzaile, munstro irensele, ostegun beltzaren testuinguruan.

The Crowd, *King Kong* edo *42nd Street*ek ikusteko modu bat zehazten dute, elementu-sistema bat, *kraketik*, bere hastapenetatik eta ondorioetatik bereizteztina den sintaxia. Saio honen xedea *The Crowd* azaltzea da, sistema horren guztiaren makina izugarria den aldetik: makina-kamerak, Manhattan ikusgarria/ispilua zeharkatu ondoren, etxe-orratz batean gora garamatza, bere erraldoi-besoek biltzen gaituztela diruditela, eta leihoetako batera eramaten; hartatik, berriz, uste ez bezala, ez dugu eszena intimorik deskubrituko, eszenategi masifikatuena baizik: bulegoan sarean lerrokatutako mahaia mugagabeak.

2009ko azaroaren 23a, astelehena: 19:30. TABAKALERAN

Juan Jose Lahuertaren aurkezpena eta pelikularen emanaldia:



The Crowd King Vidor, AEB, 1928, z/b, 104'

John eta Mary gazteak bere ilusioen alde borrokatzen dira XX. mende hasierako New Yorken. Aldiz, "aukeren herrialde"ko esperantzak hutsaldu egingo dira pixkanaka, krudela eta egoista bihurtutako hiri baten biktimak bihurtu ahala.

Zine mutuaren mitotzat jotzen den pelikula hau Akademiaren sarirako izendatu zuten pelikula onenean 1928an.

2009ko azaroaren 24a, asteartea. 10:00-14:00. CRISTINA ENEAN

Eztabaida-jardunaldia: 29ko Krakaren inguruan ekoiztutako arteak eta zinemak etorkizun zen artea eta zinema formalki nola iragarri eta zehaztuko zuten; hainbat material aztertuko: *Unseen Cinema. Early American Avant/Garde Film. Picturing a Metropolis. New York City Unveiled*, hainbat autore, 1899,1940; *42nd Street*, Lloyd Bacon, 1933; *King Kong*, Merian C. Cooper eta Ernest B. Schoedsack, 1933.

Juan José Lahuerta arkitektoa, idazlea eta Arte eta Arkitekturaren Historiako irakaslea da Bartzelonako Arkitektura Eskolan. Arte eta arkitektura garaikideko gaiei buruzko hainbat libururen egilea da, adibidez, *1927. La abstracción necesaria* (1989), *Antoni Gaudí. Arquitectura, ideología y política* (1993), *Decir Anti es decir Pro. Escenas de la vanguardia en España* (1999), *El fenómeno del éxtasis* (2004), *Japonecedades* (2005), *Destrucción de Barcelona* (2005), *Le Corbusier e la Spagna* (2005). Salvador Daliren Obras Completasen saiakera-liburuaren editorea izan da (2005), Madrilgo Reina Sofia Arte Zentro Museo Nazionaleko aholkulari, eta egun *Casabella* erredakzio-kontseiluaren kide da (Milan), baita Bartzelonako Mudito & Co editorialaren zuzendari eta Bartzelonako Museu Picassoren "senior curator" ere. Madrilgo Arte Ederren Zirkuluaren Nazioarteko Saiakera Saria jaso berri du, bere *Estudios Antiguos* liburuagatik.



2009ko azaroaren 24 eta 25a

Hiria zaintzapean: legearen, teknologiaren eta zientzia-fikzioaren erabilera ekintza sortzaile, ekintza espekulatzaile moduan

Laurence Rassel

Arkitekturan eta hiri garaikideko urbanismoan integratutako zaintzak- eta grabazio-tresnek sortzen dituzten irudiek hiriaren film-ekoizpen batera daramate; ekoizpen horrek zorrozki hartzen du "arkitekturak zinema egiten" duela, bere baitan jarritako protesi lotuak baliatuz. Galde genezake zaintza-teknikek eta, ondorioz, grabazio-aparatuek arkitekturari buruzko erabakiak baldintzatzen ote dituzten, edo eragina ote duten, alegia, egun arkitektura herritarren edota hiriaz kanpoko mugimenduak kontrolatzeko premiaren arabera planeatzen ote den.

Espazio publikoak kontrolatu edo babesteko edo bizitza pribatua inbaditzeko tresna moduan asmatuak, zaintza-kamerek ekoiztutako irudiak eta datuak jazarpenaren film-imaginario moduan balio izan dute etorkizuneko gizarteak imajinatzen orduan, François Truffauten *Fahrenheit 451*etik hasi (1966) eta Warschowski anaiei *Matrix* triologiara (1999-2003). Google Mapsek sortutako irudietatik hasi eta zaintza-kamera eta Internet bidez zabalduak webcametako edo kontrol-postuetatik ikusgai diren irudietara, esan dezakegu film-diskurtso bat garatzen ari dela automatikoki, etengabe eta ekoizpen zinematografikoarekin paralelo. Teknologia baten "eskuetan" dagoen prozesua, bere kokapeneko arkitekturak baldintzatutako enkoadratzea daukana, bere industriari bideratutako baliabideen edo aurrerapenen mendeko estetika daukana, gidoi informatikoen araberako muntaketa daukana, bere existentzia, kontserbazioa eta erabilera lege-kodeek baldintzatuta daukana.

Londres da paradigma: Europan zaintza-kameren dentsitate handiena daukan hiria; *Faceless* pelikula dugu azterketarako kasu: Telebistako Zirkuitu Itxiko zinemagileentzako Adierazpen Agiriaren arabera [Manifesto for CCTV Filmmakers] sortua, sistema horiek etengabe sortzen dituzten irudiak film-material bihurtzearen aldeko apustua, datuak babesteko Ingalaterrako legediak ematen dituen eskubideak baliatuz; legedi horrek norbera filmatua izandako irudietara sartzea baimentzen du. Irudi horiek aurrez horiek ukituz entregatzen dira, eszenan agertutako giza-erreak aurpegiak lausotuz, eskatzailearena izan ezik.

2009ko azaroaren 24a, asteartea. 19:30. TABAKALERAN

Laurence Rasselek egindako aurkezpena eta pelikularen proiektzioa:



Faceless Manu Luksch, Austria, 2007, z/b eta kolorea, 50'

Maitagarrien *sci-fi* ipuin moduan definitutako pelikula honetan, zuzendariak aktore-lanak egiten ditu aldi berean eta, non-nahi dauden kamerek irudikatutako aurpegi ezabatuko pertsonen mundu batean, bere identitatea deskubritzen du, eta bere etorkizuna imajinatzen. Lukschek "denbora erreal" erreformatu batek araututako gizarteak deskribatzen du (gurea); bertan, edonor izan daiteke "aurpegi-gabe" bat [faceless].

2009ko azaroaren 25a, asteazkena. 10:00-14:00. CRISTINA ENEAN

Eztabaida-jardunaldia: Indarrean diren legediei eta zaintza-kamerek hartutako espazioei buruzko eztabaida-jardunaldia, herritarrek erregistratutako beren datu pertsonaletara sartzeko duten eskubideei buruz; ikusgai izango dira grabazio-sareak, hirien uhin elektromagnetikoak erabiltzen dituzten ikus-entzunezko obrak, gune pribatu eta publikoen artean gero eta iragazkorragoak diren mugak gurutzatzen dituztenak.

Laurence Rassel Bartzelonako Antoni Tàpies Fundazioaren Proiektu Arduraduna da 2008ko urritik. 1997tik 2008ra Constant taldeko kidea izan zen, Bruselan oinarritutako irabazi asmorik gabeko erakunde bat. Constantek pentsamendu teorikoa, teknologia berrien erabilera kritikoa, jokabide artistikoa eta eztabaida politikoa sarean erlazioan jartzen ditu eta, aldi berean, tailerrak, konferentziak eta erakusketak antolatzen ditu espazio publikoetan. Gai nagusiak dira: softwarea eta lizentzia libreak, genero-kontuak, copyleft vs. copyright, eta medien ezagutzak partekatze forma berrien bilaketa (www.constantvzw.org).

3. SAIOA



2009ko azaroaren 25 eta 26a

Los Angeles hirugarren espazio / Los Angeles playground

Andrés Hispano

Bada errealtatea eta fikzioa nahasten diren espazio bat; bertara ez garamatza eromenak edo etsipenak soilik. Zinema garaikidean toki hori Los Angeles da, munduarentzat ametsak eta berarentzat amesgaiztoak fabrikatzen dituen hiria. Edward W. Sojak Henri Lefebvrek deskribatutako hirugarren espazioaren adibide peto-pettoa ikusten du LAn, ez proiektatutakoarekin eta ez esperimentatutakoarekin bat ez datorren tokia delakoan, biak aldi berean posible diren egoera mental bat baizik.

Lehenengo jardunaldia osatzen duten pelikulek LA eta basamortuan barreiatutako bere saihets-auzoak dute eszenatoki. Beren narrazioak ametsen eta eldarnioaren tarteko egoera mental batean gertatzen dira, bihozkadaren eta iraganarekiko zor saihestezinaren artean.


2009ko azaroaren 25a, asteazkena. 19:30. TABAKALERAN

Andrés Hispanoren aurkezpena eta pelikula-emanaldia:



L.A. Desorden horizontal berria Andrés Hispano / Toni Curco, Espainia, 2001, kolorea, 13'

La ciudad de los cineastas erakusketarako (CCCB 2001) egindako ikus-entzunezko honetan, LAn errodatutako hainbat fikzio konbinatzen dira, horien arteko antzekotasun batzuk agerian uzteko; hartara hiri hori konstante argiak dituen narrazio- eta drama-esparru bihurtzen da. Erabilitako filmetan aipa ditzagun *Grand Canyon*, *Short Cuts*, *The Big Lebowski*, *Colors*, *Magnolia* eta *American Beauty*.



The architecture of reassurance Mike Mills, AEB, 1999, kolorea, 24'

Nerabezaroa eta amerikar ametsa gai errepikakor dituen erdimetraia honetan, Alizia moderno bat urbanizazio/lorategi irreal batean barneratzen da, eta bertako leihoen atzean bere familia-bizitzako printzak deskubritzen eta bere sexualitatea pitzen.



Alice in Hollywoodland Jesus Perez-Miranda, Espainia, 2006, z/b eta kolorea, 7' Muntaketa trebe bat da eta, bertan, 1943ko Maya Derenen *Meshes of the Afternoon* laburmetraiaren eta Davi Linchen *Mulholland Driveren* arteko paralelismoak ematen ditu aditzera. Hala ere, zinta baten eta bestearen arteko zorra nabarmendu baino, laburmetraia honetan errealitatea saihesteko aterpe baten geografia kodetua agertzen da.

2009ko azaroaren 26a, osteguna. 10:00-14:00. CRISTINA ENEAN

Eztabaida-jardunaldia: Los Angelesen dimentsio zinematografikoari buruzko eztabaida-jardunaldia: narrazio-eredu bihurtutako hiri-eredua, hiri-taulategia hiri erradialari kontrajarria, non azareak apetzat aldatzen duen gure kondizioa. Hiria *hirugarren* espazio izateari soilik mugatu gabe, zinema garaikidean aztarna utzi duten elementuak aztertuko ditugu hainbat materialen bidez, hala nola: *Kiss Me Deadly*, Robert Aldrich, 1955; *Colors*, Dennis Hopper, 1988; *Grand Canyon*, Lawrence Kasdan, 1991; *Pulp Fiction*, Quentin Tarantino, 1994; *The End of Violence*, Wim Wenders, 1997; *L.A. Confidential*, Curtis Hanson, 1997; *Magnolia*, Paul Thomas Anderson, 1999; *Time Code*, Mike Figgis, 2000; *Hollywoodland*, Allen Coulter, 2006; *The Black Dhalia*, Brian De Palma, 2006; *Inland Empire*, David Lynch, 2006; *Southland Tales*, Richard Kelly, 2006.

Andrés Hispano Errealizadore eta komisario independentea. La Vanguardian maiz idazten du eta *Cultura/s* gehigarriko aholkulari-batzordeko kidea da. *David Lynch*, Claroscuro americanoren egilea (Glenat, 1999) eta *Imágenes para la sospecharen* (Glenat, 2002) zein *Barcelona Frameren* (Actar, 2006) egileetako bat. *La Ciudad de los cineastasen* komisario-kidea (Jordi Ballórekin batera, CCCB, 2002), baita *That not entertainment!*ena (Toni Pinentekin batera, CCCB, 2006), *El Rey de la casa* (Marc Roigekin batera, Palau de la Virreina, 2006) eta *La Pantalla Global* (Gilles Lipovetsky eta Jean Seroyekin batera, CCCB, 2010).



2009ko azaroaren 26 eta 27a

Llorenç Soler: Irudi batzuen bigarren bizitza

Eva Serrats

1965ean, Bartzelonako Etxebizitzaren Udal Patronatuak dokumental bat egitea enkargatu zion Llorenç Soler zinemagileari, egiten ari ziren etxebizitza-politikak bertan erakutsi zitzan: penintsula osotik hirira heldutako milaka etorkini aterpe duina emateko poligonoak; aldiz, etorkinek haiek berek eraikitako barraka-auzo handietan bizitzen amaitzen zuten. Soler-ek 16 mm-ko bere kameraz auzo horietako batzuk eta horiek ordezkaturiko zituzten etxebizitzak eta ekipamenduak filmatu zituen, baina gidoia onartu zioten arren, hartutako irudien errealismoak eta gogorrak izutu egin zituen, eta *Será tu Tierra* zoko batean geratu zen.


1969an, berriz, atzean enkargurik izan gabe, Soler-ek irudi horiei heldu zien berriz, beste helburu baterako. Muntaketa gogor eta zorrotza da,

off ahots larri eta etsia lagun, beren bizitzaz eta egoeraz diharduten pertsonaien ahotsak ere tartean; horiek hiru urte lehenago grabatutako irudiei gaineratu zitzaizkion, eta pelikula berri bat sortu zen: *El largo viaje hacia la ira*, gizarte-salaketako pelikula bat, independentea, klandestino eta legez kanpoko; bada, Nazioarteko Prentsaren saria irabazi zuen Espainiaz kanpora Leipzigezko Dokumental Zinemaren Festibalean (AEDn). Material hori bera eta bi muntaketa, bi tratamendu, bi estetika, bi testuingurutan, bi dramaturgiarekin, bi zentzu desberdin hartzen dituela.

Dokumental horien azterketak zinemaren "mugimendu" batera garamatza: *found footage* [aurkitutakoa filmazioa]; zinemagileak berak sortuak izan ez arren, berreskuratu eta eguneratzen dituen irudiz egindako pelikula guztiak kokatzen dira bertan, eta forma berria bereziki sustatzen da, baina artxibo-balioari eutsiz. Pelikulak existitzen den eta aurkitutako materialetik abiatuz eraikitako arkitektura-obrekin jarriko dira erlazio esplizituan. Soler-ek filmatutako barrakak "*found footage* arkitektonikoa"ren laginak dira: kolokako eraikuntzak dira, aurkitutako eta elkarri lotutako objektu ezagunen bidez egindako eraikinak dira, eta aurreko testuinguru baten lekukotza dakarkigute. Hala ere, gero, jakinaren gainean aurkitutako material bati esanahi berria ematen dion interbentzio bat proposatzen duten proiektu arkitektonikoak daude. Zinema eta arkitekturako *objet trouvé* dira, eta zehazkiago, zinemaren eta arkitekturaren hurrenez hurren proposatutako jabetze-forma desberdin eta ez hain desberdinenak.

2009ko azaroaren 26a, osteguna. 19:30. TABAKALERAN

Eva Serratsen egindako aurkezpena eta dokumentalen emanaldia:



Será tu tierra Llorenç Soler-enak, Espainia, 1966, z/b, 44'

El largo viaje hacia la ira Llorenç Soler-enak Espainia, 1969, z/b, 25'

Será tu tierra, Bartzelona hiriko etxebizitzaren politika berriei buruzko dokumentu bat izan behar zen, baina txabola-pilaketaren, etorkinen zein haien esplotazioaren eta klase-gatazkako egoeraren salaketa bihurtu zen. Bistan denez, enkargua egin zuen Patronatuak bere dibulgazioa debekatu zuen. Bigarren bertsio batean, lehenengoko materiala hartuz eta filmatutako beste berri bat gehituz, *El largo viaje hacia la ira* sortu zen; bertan, oraingoan edozein presiotatik guztiz libre zegoela, gizarte-salaketaren diskurtsoa azaltzen da.

2009ko azaroaren 27a, ostirala. 10:00-14:00. CRISTINA ENEAN

Eztabaida-jardunaldia: zinema "egiteko moduen" eta arkitektura "egiteko moduen" artean adieraz daitezkeen askotariko paralelismoak. Hizpidea jarriko dute ere material arrotzaz jabetuz eta manipulaturaz eraikitzen diren obrek, hainbat material aztertzearen bidez, hala nola, *Perfect Film*, Ken Jacobs, 1986; *Tribulation 99*, Craig Balwin, 1991; *Rumpelstilzchen*, Jürgen Reble, 1989. Aztertuko dira, gainera, beste zenbait obra, adibidez, Borneko Merkaturia (Bartzelona), Jujol Negre Etxean (Sant Joan Despí), Marcelo Antzokia (Erroma), Dimitris Pikionis Atenasko Akropolian (Atenas), Lacaton&Vassal Tokioko Palaisean (Paris), OMA/AMO Hermitage Museoa etab.

Eva Serrats Bartzelonako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko arkitektoa eta Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Sorkuntza Dokumentaleko masterduna da. Arkitekto-lanetan aritu da, arkitektura eta publizitateko argazkilari-lanetan eta dokumental-pelikulen errealizazioan. 2004an, Leve_ enpresa sortu zuen arkitektura, zinema eta argazkilaritzako diziplina arteko proiektuak egin eta ekoizteko. Egun, Mercedes Alvarezen *Tierras bajo un sol invernal* favorable pelikula/saiakera ekoiztearen ardura dauka bere gain, hiriko irudiaren eraikuntza zinatografikoari buruz; aldi berean, *¿Qué es Arquitectura?* proiektuaren zuzendari-lanetan dabil. Bertan, saretik lor daitezkeen film laburren bidez, 5-8 urte arteko umei arkitektura hurbildu nahi die.

Emanaldiak eta eztabaida-jardunaldiak*

2009ko azaroaren 23tik 27ra

1. SAIOA

2009KO AZAROAREN 23 ETA 24A

The Crowd: makinak, etxe-orratzak eta jendetzak 29ko krakean.

Juan José Lahuerta

2. SAIOA

2009KO AZAROAREN 24 ETA 25A

Hiria zaintzapean: legearen, teknologiaren eta zientzia-fikzioaren erabilera ekintza sortzaile, ekintza espekulatzaila.

Laurence Rassel

4. SAIOA

2009KO AZAROAREN 26 ETA 27A

Llorenç Soler: Irudi batzuen bigarrenengo bizi.

Eva Serrats

3. SAIOA

2009KO AZAROAREN 25 ETA 26A

Los Angeles hirugarren espazio / Los Angeles playground.

Andrés Hispano

Tokia (arratsaldea): **TABAKALERA**. KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA

Tokia (goiza): **CRISTINA ENEA**. INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA

Ordutegia: arratsaldeetan 19:30ean; goizetan 10:00etatik 14:00etara

CRISTINA ENEA. INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA

Mandasko Dukearen pasealekua, 66. 20012 Donostia-San Sebastián

www.cristinaenea.org

TABAKALERA. KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA

Mandasko Dukearen pasealekua, 52. 20012 Donostia-San Sebastián

www.tabakalera.eu

* Goizeko eztabaida-jardunaldietara bertaratzeko, alde aurretik izena eman behar da, datu pertsonalak (izena, jarduera, posta-helbidea, posta elektronikoa eta kontaktu-telefonoa) eta zein saioetara joan nahi den adierazita bidaliz: cristinaenea@donostia.org

Inskribapen-ordenaren arabera egingo da onarpena, edukiera bete arte.

PROGRAMA
Emanaldiak eta eztabaida-jardun



Erakusketa

2009ko urriaren 29a – 2009ko abenduaren 31

Lagos. Wide & Close:
bidaia elkarreragile
bat bor-bor den
hirira

Mock-Ups in Close-Up

aurkezpena 2009ko urria. Orduategia: 19:00

Bidebieta

Ocharcoaga

Lekua: **CRISTINA ENEA**. INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA
Orduategia: Astelehenetik larunbatera, 9:30-13:30 eta 15:00-20:00
Igandeak eta jaiegunak, 10:00-13:30

Erakusketa

pu

Exposición